

BIZITZEKO GUTXIENEN DIRU SARRERA (BGDS)

INFORMAZIO OROKORRA

19/2021 Legea, abenduaren 20koa



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO




Europar Batasunak
kofinantzatuta

Cofinanciado por
la Unión Europea

945 160 600

| www.lanbide.euskadi.eus |





BGDSa Gizarte Segurantzaren prestazio ez-kontributiboa da, eta gutxieneko diru-sarrerak bermatzen dizkie halakorik ez dutenei. Eskubide subjektibo gisa definitzen da, eta **eskaera aurkezten den egunetik aurrera sortzen da.** **Eskubideari eutsiko zaio** eskubidea ematea eragin zuten arrazoiek irauten duten eta betebeharrak betetzen diren bitartean. Ordainketa hileroko egingo da, banku-transferentzia bidez, prestazioaren titularraren kontu batera.

Titularrak

Bizikidetza-unitate (BU) batean integratuta:

- Gaitasun juridikoa izatea
- Gutxienez 23 urte izatea

Salbuespenak: 18 eta 22 urte bitarteko pertsonak edo adingabe emantzipatuak, baldin eta:

- Seme-alabak edo adingabeak adopzio-helburuko zaintza-erregimenean edo familia-harrera iraunkorrean izanez gero
- Erabateko umezurtzak, bizikidetza-unitateko kide bakarrik direnean eta 23 urtera iristen ez direnean.

Bizikidetza-unitate batean integratu gabeak = Banakako persona onuraduna (OI):

- Gaitasun juridikoa izatea
- Gutxienez 23 urte izatea

Salbuespenak: 18 eta 22 urte bitarteko pertsonak, baldin eta:

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.
- Gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak izatea.
- Adingabeak (tutoretzapean) babesteko zentroetatik datozenak, adin-nagusitasunera iritsi aurreko 3 urteetan.
- Erabateko umezurtzak.

Onuradun indibidualak (OI)

Bizilekua bizikidetza-unitate batekin partekatu arren, bertan sartzen ez diren pertsonak, baldin eta:

- Ezkonduta ez badaude, banantze- edo dibortzio-izapideak hasi direnean izan ezik.
- Izatezko bikote gisa beste pertsona bati lotuta ez badaude.
- Beste bizikidetza-unitate bateko kide ez badira.
- Gurasoengandik, tutoreengandik edo harreragileengandik aparte bizi izana egiaztatu behar dute:

- 23 eta 29 urte bitarteko Olen kasuan, egiaztatu beharko dute eskaera egin aurreko bi urteetan gutxienez hamabi hilabetez egon dela Gizarte Segurantzaren alta emanda, jarraituak edo ez.
- 30 urtetik gorakoak badira, egiaztatu beharko dute data horren aurreko urtean.

Bizitza independentearen betekizuna ez da eskatuko:

- Adingabeak babesteko autonomia-erkidegoetako egoitza-zentroetatik datozen 18 eta 22 urte bitarteko pertsonak, adin-nagusitasunaren aurreko 3 urteetan, edo erabateko umezurtzak direnei, baldin eta bakarrik bizi badira bizikidetza-unitate batean sartu gabe.
- Guraso, tutore edo harreragileekiko bizikidetza bertan behera uztea horien heriotzaren ondorio izan denean.

- Genero-indarkeriaren biktima izateagatik ohiko etxebizitza utzi duten pertsonak.
- Etxerik gabeko pertsonak.
- Banantze- edo dibortzio-izapideak hasi dituzten pertsonak.
- Giza salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak.

Bizikidetza-unitatea (BU)

Bizikidetza-unitatea osatzen dute familia-loturaz nahiz izatezko bikote gisako loturaz elkarrekin bizi diren pertsonak, bai **odolkidetasuneko** edo ezkontza-ahaidetasuneko **bigarren mailara** artekoek, bai adopzioan, adopzio-helburuko zaintzan edo familia-harrera iraunkorrean daudenek. **Eskaera aurkeztu aurreko sei hilabeteetan gutxienez modu jarraituan eratuta egotea** eskatuko da. Ahaidetasun-mailak honako hauek dira:

- Lehenengo maila: seme-alabak, ezkontidea, gurasoak, aita-amaginarrebak, errainak eta suhiak.
- Bigarren maila: aitona-amonak, anai-arrebak, bilobak eta koinatu-koinatak.
- Hirugarren maila: osaba-izebak, ilobak, bir aitonak-amonak eta birbilobak.
- Laugarren maila: lehengusu-lehengusinak eta osaba-izeba zaharrak.

Izatezko bikotetzat hartuko dira eskaera egin aurretik modu **egonkor** eta nabarmenean elkarrekin bizi izan diren bikotekideak, baldin eta bizikidetzak gutxienez **bost urteko** iraupena izan badu eta, gutxienez, **eskabidea aurkeztu aurreko bi urteetan** bikotea **agiri publiko** bidez erregistratuta edo **formalizatuta** egon bada.

Bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonetako bat hiltzeak ez du aldatuko bizikidetza-unitatearen izaera, nahiz eta suspertitis kidearentzat heriotza horrek lehen deskribatutako loturak galtzea ekarri.

Ikasketengatik, lanagatik, tratamendu medikoagatik, errehabilitazioagatik edo antzeko beste arrazoi batzuegatik **aldi baterako banantzeak** ez du bizikidetza hausten.

Egoera bereziak

OI edo BU independentetzat hartuko dira ohiko familia-bizilekua uzten duten pertsonak, lehen deskribatutako loturaren bat duten beste pertsona batzuekin etxebizitza berean bizitzeko:

- Genero-indarkeriaren biktima den emakume batek ohiko familia-etxebizitza utzi duenean, bere seme-alabekin edo adopzio-helburuko zaintza-erregimeneko edo familia-harrera iraunkorreko erregimeneko adingabeekin batera joan edo ez.

Honako kasu hauetan, **OI edo BU independentetzat** hartuko dira bakar-bakarrik horietako bakoitzean **adierazitako egitateak gertatu eta hurrengo hiru urteetan:**

- Banantze-, deuseztasun- edo dibortzio-izapideak hasteagatik, edo formalki eratutako izatezko bikotea desegiteko eskatzeagatik, pertsona batek bere ohiko familia-bizilekua uzten duenean, seme-alabekin edo adopzio-helburuko zaintza-erregimenean edo familia-harrera iraunkorrean dauden adingabeekin batera joan edo ez. Bizikidetza amaitu duten izatezko bikote formalizatu gabeen kasuan, prestazioa eskatzen duen pertsonak, hala badagokio, adingabeen zaintza eta jagoletza esleitzeko izapideen hasiera egiaztatu beharko du.
- Bizilekutik alde egin izana egiaztatzen denean, utzarazpena dela-eta, edo istripua edo ezinbesteko kasua dela-eta, etxebizitza hori bizigabe geratu delako.

Guraso bakarreko bizikidetza-unitatea

- Zaintza eta jagoletza eskusiboa duen bigarren mailarainoko adingabe batekin edo gehiagorekin bizi den pertsona heldu bakar bat, edo pertsona heldu bakar adingabe batekin edo gehiagorekin familia-harrera iraunkorreko edo adopzio-helburuko zaintzako erregimenean bizi bada eta pertsona harreragile edo zaintzaile bakarra bada. **Seme-alabak, erroldatuta dauden bizilekuko bizikidetza-unitatean zenbatzen dira.**
- Bi guraso, aipatutako ondorengo edo adingabeekin, baldin eta horietako bat espetxean edo ospitaleratuta badago urtebetez edo gehiagoz.
- Guraso gisa dauden bi pertsona (aitona-amonak, zaintzaileak edo hartzaileak) aipatutako ondorengoekin edo adingabeekin, baldin eta horietako batek 3. mendetasun-maila, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortuta badu.
- Genero-indarkeria jasan duen emakume batek eta bigarren gradura arteko ondorengo batek edo gehiagok, adingabeek, baldin eta haien zaintza eta jagoletza badute, edo, hala badagokio, adingabe batek edo gehiagok, familia-harrera iraunkorreko edo adopzio-helburuko zaintzako erregimenean.

Lotura gurutzatu bidezkoa bizikidetza-unitate eratzea

Etxebizitza berean bizi diren pertsona guztiak bizikidetza-unitate berekoak dira, betiere familia-unitateko kideren batekin loturarik badute. Hau da, lotura gurutzatua aplikatu behar da bizikide guztien artean. Adibiderik ohikoena seme-alaba bat elkarrekin izan eta ezkontza-loturarik edo izatezko bikoterik eratu ez duten gurasoena da.

BUei buruzko argibideak

- Ezkontide/bikotekidearekin bizileku berean bizi ez den eta dokumentu publiko batean erregistratuta edo formalizatuta dagoen izatezko bikote/ezkontza bidez lotutako pertsona bat BGDSaren hartzaile izan daiteke betiere bizikidetza-unitate batean integratuta badago; aitzitik, ezingo litzateke izan banakako onuraduna bada.
- Pertsona bera ezin izango da, inola ere, bi bizikidetza-unitate edo gehiagoko kide izan.

Baldintzak

Onuradun guztiek, bizikidetza-unitate batean egon edo ez, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainian legezko eta benetako bizilekua izatea, eta gutxienez eskaera aurkeztu aurreko urtean egoitza jarraitua eta etengabea izatea. Ez zaie eskatuko:

1. Jaiotza, adopzio, zaintza edo harrera bidez sartutako adingabeak.
2. Gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak.
3. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

Pertsona batek Espainian du ohiko bizilekua, baldin eta atzerriko egonaldiak ez badira 90 egunetik gorakoak urte natural bakoitzean, edo kanpoan egotea behar bezala justifikatutako gaixotasun-arrazoiengatik gertatu bada.

b) Egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario iraunkor baten erabiltzaile ez izatea, genero-indarkeriaren biktima diren edo gizakien **salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeen kasuan izan ezik.**

d) Askatasunaz gabetzeko zigorra betetzen ez egotea:ezin dute eskuratu ez OI gisa, ez BI bateko kide gisa, eta **haien diru-sarrerak ere ez dira kontuan hartuko.**

e) Kalteberatasun ekonomikoko egoeran egotea, errenta, diru-sarrera edo ondare nahikorik ez izateagatik. Baldintza hori betetzen da **aurreko ekitaldiari** dagozkion urteko diru-sarrera eta errenta konputagarrien hileko **batez bestekoa txikiagoa** bada, **gutxienez 10 eurotan**, modalitatearen eta bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera **dagokion errenta bermatuaren hileko zenbatekoa baino.**

Zaugarritasuna urtean zehar gertatu bada, **apirilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean eskatu ahal izango da** baldintza urtean zehar betetzen den aztertzea, horretarako diru-sarreraren zati proportzionala kontuan hartuta: ez dira kontutan hartuko **urtean zehar** jasotako prestazioak eta/edo subsidioak, baldin eta eskaera egiten den egunean, agortzeagatik, uko egiteagatik edo aurreikusitako diru-sarreraren muga gainditzeagatik, eskubidea iraungita badute.

Errentaren zenbatekoak

2023rako errenta bermatuen zenbatekoak. Onuradun ez indibidualak

Bizikidetza-unitatea	Euro/urtean	Euro/hilean
Heldu bat	6.784,44	565,37
Heldu bat eta adingabea	8.819,88	734,99
Heldu bat eta bi adingabe	10.855,20	904,60
Heldu bat eta hiru adingabe	12.890,52	1.074,21
Heldu bat eta lau adingabe edo gehiago	14.925,96	1.243,83
Bi heldu	8.819,88	734,99
Bi heldu eta adingabe bat	10.855,20	904,60
Bi heldu eta bi adingabe	12.890,52	1.074,21
Bi heldu eta hiru adingabe edo gehiago	14.925,96	1.243,83
Hiru heldu	10.855,20	904,60
Hiru heldu eta adingabe bat	12.890,52	1.074,21
Hiru heldu eta bi adingabe edo gehiago	14.925,96	1.243,83
Lau heldu	12.890,52	1.074,21
Lau heldu eta adingabe bat	14.925,96	1.243,83
Beste batzuk	14.925,96	1.243,83

2023rako errenta bermatuen zenbatekoak. Onuradun indibidualak

Bizikidetza-unitatea	Euro/urtean	Euro/hilean
Heldu bat eta adingabe bat	10.312,44	859,37
Heldu bat eta bi adingabe	12.347,76	1.028,98
Heldu bat eta hiru adingabe	14.383,20	1.198,60
Heldu bat eta lau adingabe edo gehiago	16.418,52	1.368,21

Bermatutako errentaren zenbatekoak 2023an. Guraso bakarreko unitatea. Gurasoak/aitona-amonak/zaintzaileak edo hartzaileak, horietako batek 3. mendetasun-maila, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortuta baditu.

Bizikidetza-unitatea	Euro/urtean	Euro/hilean
Bi heldu eta adingabe bat	12.347,76	1.028,98
Bi heldu eta bi adingabe	14.383,20	1.198,60
Bi heldu eta hiru adingabe	16.418,52	1.368,21

Betebehar nagusiak

- a) Betekizunak egiaztatzeko eta prestazioa mantentzeko beharrezko dokumentazioa eta informazioa ematea, bai eta jakinarazpenak eta komunikazioak jasoko direla bermatzea ere.
- b) Prestazioa aldatzea, etetea edo iraungitzea ekar dezakeen edozein aldaketa edo egoeraren berri ematea, aldaketa edo egoera gertatu eta hogeita hamar egun naturaleko epean.
- c) Udal-erroldan titularrari edo bizikidetz-unitatea osatzen duen beste edozein kideri zuzenean eragiten dion edozein helbide edo egoera-aldaketaren berri ematea, aldaketa horiek gertatzen direnetik hogeita hamar egun naturaleko epean.
- d) Oker jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzea.
- e) Titularra edo bizikidetz-unitateko kideen atzerrirako irteerak aurretiaz jakinaraztea, urte natural bakoitzean laurogeita hamar egun natural baino gehiago direnean, jarraian izan edo ez.
- f) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion aitortpena urtero aurkeztea.
- g) Bizitzako gutxieneko diru-sarreraren prestazioa laneko errentekin edo jarduera ekonomikoarekin bateragarri eginez gero, bateragarritasuna lortzeko eta horri eusteko ezarritako baldintzak betetzea.
- h) Gizarteratze, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioak sustatzen dituen gizarteratze-estrategietan parte hartzea.

Identitatea

- Espainiarren kasuan: nortasun agiri nazionalaren bidez.
- Atzerriko herritarren kasuan: jatorrizko herrialdeko nortasun-agiri nazionalaren bidez, edo atzerritarren identifikazio-txartelaren bidez, edo pasaportearen bidez.

Era berean, identifikazio-zenbaki pertsonala (AIZ) aurkeztu behar da, Espainian nortasuna edo legezko bizilekua egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuetan jasota ez badago.

Legezko bizilekua

Atzerritarren Erregistro Nagusian inskribatuz, Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideetako edo Suitzako Konfederazioko herritarren kasuan, edo Europar Batasuneko herritarren senide-txartelaren bidez edo bizileku- baimenaren bidez, edozein modalitatetan, beste nazionalitate bateko atzerritarren kasuan.

Gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimek, bai eta haien seme-alabek ere, legezko bizilekua Espainian dutela egiaztatu ahal izango dute, Barne Ministerioko Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak agintaritzak polizial edo judizialekin lankidetzan aritzeagatik emandako behin-behineko bizileku-baimenarekin, edo Migrazioen Estatu Idazkaritzak biktimaren egoera pertsonala kontuan hartuta emandakoarekin.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eta haien seme-alabek Espainian legezko bizilekua dutela egiaztatu ahal izango dute, salbuespenezko bizileku-baimena emateko eskumena duen agintaritzak emandako behin-behineko bizileku-baimenarekin, azken baimen hori ebatzi bitartean.

Bizikidetza-unitatea

Familia-liburuaren bidez, erregistro zibilaren ziurtagiriaren bidez, eta udal-errolan etxebizitza berean inskribatutakoei buruz dauden datuekin.

Banantze- edo dibortzio-izapideak hastea

Epaitegian demanda aurkeztuz edo dagokion ebazpen judizialaren bidez egiaztatuko da, edo agiri publiko bidez.

Genero-indarkeriaren biktima izatea

Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarritako edozein bitarteko erabiliz. Gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima dela egiaztatzeko, biktima horiei arreta integrala emateko ardura duten zerbitzu publikoek edo gizarte-zerbitzuek egindako txostena aurkeztu beharko da, bai eta erregelamendu bidez zehazten den beste edozein egiaztapen-bide ere.

Adingabeak babesteko egoitza-zentroetako adingabeak

Adingabeak babesteko egoitza-zentroetatik datozen 18 eta 22 urte bitartekoak direla egiaztatzeko, dagokion autonomia-erkidegoaren harrera edo tutoretza izan duen erakundeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Desgaitasuna

%65ekoa edo hortik gorakoa, autonomia-erkidegoetako organo eskudunaren eta Ceuta eta Melillako IMSERSOren ziurtagiriarekin egiaztatuko da.

Mantenu-pentsioa ordaindu ez izanaren egiaztagiria

- Adingabeekin bizi ez den gurasoak pentsiorik ordaintzeko betebeharrrik ez duela ezartzen duen ebazpen judizial irmo bidez.
- Prestazio bat ordaintzeko betebeharra badago, ordaindu ez izana egiaztatu beharko da ebazpen judizial irmoaren kopiaren bidez, non ezartzen diren seme-alaben zaintza eta jagoletza edo berarekin bizi diren adingabeen harrera, mantenu- pentsioa ordaintzeko betebeharra eta ordaindu gabeko pentsioen erreklamazio judiziala izapidetzeko onartzea.

Epaia betearaztean kopuru bat zehazten bada, hori betearazi den jakin ahal izateko hau behar da: zor ziren zenbatekoak ordaindu direla egiaztatzen duen epaitegi-ziurtagiria.

Azalpenak

Lanbidek emango dituen ziurtagiriak

Lanbidek ziurtagiri bate mango die BGDSa jasotzen dutenei, honako egoera hauek egiaztatzeko:

- Gezurrezko helbidean erroldatuta egotea.
- Erroldaz besteko helbidea.
- Aldi baterako egoitza-zerbitzua ematea.
- 6.1 artikulua ezarritako loturarik ez egotea.
- Modu independentean bizitzea.
- Bizikidetza-unitate bateko kide izatea.
- Baztertuta geratzeko arriskuan egotea.

Haurrentzako laguntza-osagarria (HLO)

- BGDSren onuradun diren familientzat, adingabeak ardurapean badituzte.
- Etxean adingabeak dituzten errenta baxuko beste familia batzuen kasuan, baldin eta BGDSa jasotzeko baldintzak betetzen badituzte, eta errentaren eta ondare garbiaren atalaseak ez badira, hurrenez hurren, % 300etik eta % 150etik gorakoak.
- Abenduaren 20ko 19/2021 Legea indarrean sartzen den egunean seme-alaba bakoitzeko edo desgaitasunik ez duen edo ehuneko 33tik beherako desgaitasuna duen ardurapeko adingabe bakoitzeko esleipen ekonomikoaren onuradun den pertsona.

Hileko zenbateko bat izango da bizikidetza-unitateko kide den adingabe bakoitzeko, dagokion ekitaldiko urtarilaren 1ean betetako adinaren arabera:

- Hiru urtetik beherako pertsonak: 115 euro.
- Hiru urtetik gorako eta sei urtetik beherako pertsonak: 80,50 euro.
- Sei urtetik gorako eta 18 urtetik beherako pertsonak: 57,50 euro.

BGDSrako konputagarriak diren diru-sarrerak, baina DSBEaren ordorioetarako ez direnak

- Genero-indarkeriagatiko Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.
- Administrazio publikoetatik jasotako familia-prestazio eta -laguntzak, jaiotzarekin, adopzioarekin, harrerarekin edo seme-alabak zaintzearekin lotutakoak.
- Azpierrentamenduko diru-sarrerak.



www.lanbide.euskadi.eus

945 160 600

